

Paperezko altxorren bila

3.900 dokumentuk osatzen dute Baionako liburutegiko euskal bilduma. Altxorra, aldizkari eta liburu zahar, behar den bezala zaindua da.

Xan Aire. Baiona

Azken mailak. Azken agurra langile bati. Azken atea. Sartzeko baimena eman du giltza txikiak. Mundu berri bat. Hertsia. Usain berezi hura. Lekuaren isiltasunak mututurik uzten du. Hitzek ere isilik ibili nahi dute letren munduan. Hor daude, lerroan, bakoitza bere lekuan. Larruzko jantzian batzuk, biluzik besteak.

Paperezko altxorrak. Baionako liburutegiko euskal bilduma. 3.900 dokumentu. Aldizkari eta liburu zaharrak. Kasu. Zaharragoak ez du erran nahi balio handiagokoa denik. Arraroago eta baliotsuagoa da gauza bat. Liburu bat ere, aldizkari bat ere. Gauzak argi utzi nahi ditu Xanti Schlecht liburuzainak. Gero, liburu edo aldizkarien artean, zein diren garrantzitsuenak, biak hala direla erran nezake. Oihenarten obra bezalakoek pentsatzen ahal dugun balioa dute, bistan dena. Baina aldizkarietan zernahi informazio biltzen ahal da aitzineko mendeetako biziaz, eta hori ere berezia da. Hala nola historiaren une zehatzak, herri bateko euskalkiaren aztarnak, bai eta anekdota politak biltzen ahal dira aldizkarietan.

Horietan aipagarriena, Gure Herria aldizkaria geratzen da, batez ere Piarres Lafitte hizkuntzalariak hor idatzi baitzituen lehen artikuluak, 1921. urtean. Lafittek hainbat izenperekin idatzi arren Gure Herria haren zutabeek osatzen zutela badakigu gaur egun. Preseski, Baionako liburutegiko euskal bildumaren oinarria da Lafitten fondoa. 1.300 liburuk osatzen dute. Edozeinetik hizkuntzalaritza zorrotzenera, Schlechtek dioen bezala. Euskaraz diren liburu gehienak erlijioak dira. XVII eta XVIII. mendeko liburu gehienak bezala, funtsean. Gero, Lafitten gramatika frantsesez dela jakin behar da. Baina ikaragarritzko lana egin du, euskal literatura eta hizkuntzarentzat. Lafitte hil ondoan, 1990eko hamarkadan, sartu ziren dokumentu hauek denak Baionako liburutegian, eta Euskal Museoari eskaini zizkieten baliotsuenak. Aurkitzen ahal diren izenak Darnats, Hariztoi, Pellot edo Anton Abadia dira.

Baina euskal bilduma zabal honetan, hizkuntzalaritzako liburuak dira gehienik kontsultatuak. Bistan da adituek kontsultatzen dituztela, dio liburuzainak. Baina ez dira ikaragarritzko ikasketak eginak dituzten pertsonak, baina honat etorritik gauzak ikasi dituztenak, autodidaktak, beste hitzez.

Nahiz eta altxortzat jo artxiboko dokumentuak, edonork kontsultatzen ahal dituela azpimarratu nahi dute Baionako liburutegiko arduradunek. Nortasun agiria baizik ez dugu galdegiten. Liburu zaharrenekin, haatik, neurri bereziak hartzen dituzte. Lehen edizioak babestu behar ditugu. Begira, Oihenarten esaera bilduma, adibidez, aski hondatua da, eta ahal bezain guti erabilia izan behar du. Horregatik, edizio berriak uzten dituzte jendeen eskuetan. Baina ikertzaile batek eskatzen baldin badu edizio originala, eman behar diogu horregatik.

Liburuak babestea da artxiboko lehen ardura. Liburutegiaren egoitzak berak ongi babesten ditu, pareta potoloak baitira. Guk leihoak kondenatu ditugu,

dokumentuak talka termikoez babesteko. Ez dituzte kanpoko tenperaturen gorabeherak jasan behar, batez ere bortitzak direnean. Balio handienekoak, berriz, kofre batean gordeak dira. Hau ere eguraldiari aurre egiteko pentsatua da, girotua baita.

DIGITALIZAZIOAREN GARAIA

Dena den, babes neurri garrantzitsuak emanaz ere, urteek jaten dituzte liburuak. Mikrofilmetan hasi dira dokumentuak jartzen duela zenbait urte. Baina digitalizazioa da liburuen salbatzeko aterabiderik fidagarriena. Dokumentu gehienak digitalizatu nahi genituzke orain, dio Isabelle Blainek, liburutegiko zuzendariak. Baina hori Frantziako gobernuaren laguntzarekin baizik ez dute egiten ahalko, eta haiekin ikusi beharko da zein digitalizatu beharko diren. Liburu arraroenak eta hondatuena izan beharko lukete lehentasuna. Poliki-poliki eginda ere, abantaila handiak izanen ditu digitalizazioak. Kontserbazio lekutik ez genituzke gehiago atera behar liburuak, eta munduan zehar ikusten ahalko dira, Interneten bidez. Pozik agertu da zuzendaria horrekin.

Baina altxorren xarma galtzen dela digitalizazioarekin onartu dute liburutegiko zuzendariak. Pixka bat galtzen da, bistan dena. Baina gauzak ongi egiten dituzte, adierazi du Schlechtek. Hemengo aldizkari xahar bat, Bulletin de la société sciences et arts digitalizatu du Frantziako Liburutegi Nazionalak. Orrialde bakoitzaren argazkia hartzen da digitalizatzen denean. Kasik iduri du originalaren orrialdeak itzultzen dituzula, pantailan kontsultatzen duzunean. Iduri du papera hunkitzen duzula! Gero, egia da museo batera zoazenean, ez duzula obra baten kopia ikusi nahi....

Paperezko altxorrak hauskorrak dira. Urteek horitzen, hondatzen eta jaten ahal dituzte, baina balioa handitu ere bai. Zaharrak izatearen xarma.

HIRU OBRA, HIRU LIBURU

Axularren ' Gero ' liburuaren lehen edizioa (1643)

Euskal literaturaren historian lehen prosazko liburu originala da. Axular hil baino urtebete lehenago inprimatu zen lehen aldikoz, 1643an. Inongo mistikarik gabe, irakurlearen jokabidea aldarazi nahi du: Kristauari zeinen arriskutsu izan dakiokeen arimaren zereginei berehala ez atxikitzea, erlijioarekiko betebeharrak biharko uztea, beti gerotik gerora luzamendutan ibiltzea. Liburuaren gai nagusia Gero dioenak bego dio atsotitzarekin laburtzen delarik, hori ez da izan, noski, kritikoek maisulan gisa hartzeko arrazoiak, Axularren estilo biziarekin.

Piarres Lafitten bilduman dira Gero liburuaren lehen eta bigarren edizioak. Liburu originala segurtasun kutxan daukate, bestea Lafitten bilduman, artxiboan. Bi liburuek itxura berdintsua dute, larruzko azala gogor-gogorra jarria, orrialdeak horitzen hasiak, baina egoera onean, sobera hondatuak izan gabe.

Arnaud Oihenarten esaera bilduma (1657)

Les Proverbes Basques, recueillis par le Sr. d ' Oihenart; plus les poésies basques du mesme auteur (1657). Bi zati ditu: Atsotitzak edo refrauak eta poesiak: O.ren gaztaroa neurtitzetan. Berak jasoak baino bidaliak ote diren esaera zaharrak. Hor daude Bertrand Zalgize olerkari zuberotarrak igorritako 205 errefrau. Orotara 706 esaera aurkituko dira, bakoitza frantsesezko itzulpenarekin. Hori baino lehenago latinez idatzitako bere lanik garrantzitsuena kaleratu zuen, Notitia

utriusque Vasconiae, tum ibericae, tum aquitaniae (Paris, 1638). Hori ere badago Baionako liburutegian.

Eskuetan hartzean, obra hauskorren efektua ematen du. Orrialdeak zahartuak, bazterretan erreak bezala. Kartoizko azal batean gordetzen dute liburutegian, segurtasun kutxan. Dena den, idatzitakoa zehazki irakurtzen ahal da hasieratik bukaerara, arazorik gabe. Altxor zaharra eta arraroaren itxura du. Dalasque deitutako ikertzaileari esker eskuratu zuen Baionako liburutegiak, XIX. mende bukaeran.

Leizarragaren ' Testamentu Berria ' (1571)

Euskaraz argitaratutako bigarren liburua. Bibliaren Itun Berria-ren itzulpena kaleratu zuen, Jesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria izenburuarekin, 1571n, Arroxelan (Frantzia). Horren aurretik, Bernat Etxepareren Lingua Vasconum Primitiae 26 urte lehenago plazaratua zen euskaraz inprimatutako liburu bakarra.

1559ko Bazkoan, Joana III.a Albretekoa Nafarroako Erreginak uko egin zion erlijio katolikoari, eta Kalbinen fedea hartu zuen. Erresuman kalbinismoa zabaltzeko asmoz, sinodo kalbindarra antolatu zuen Paben, 1564an, eta sinodo horren ondoren erabaki zuen Leizarragari Bibliaren Itun Berriaren euskarazko itzulpena egin zezan, euskaldunen artean protestantismoa zabaltzeko. Nafarroako errege etxeak finantzatu zuen itzulpena. Lana modu egokian egina izan zedin, bederatzi ministroen batzar bat eratu zen Pabeko sinodoan. Altxorrik zaharrena baldin bada ere, liburuaren itxura berriak harritzen du. 1896. urtean eskuratu zuen Baionako liburutegiak.